

Agustin Oyarzabal: Egun on eta lehenbizi eskerrik asko Euzko Alderdi Jeltzaleari gonbitea luzatzeagatik .

Ibaizabal argialetxeak bi ardatz nagusi joratu ditu eskolarako materialgintza lanean: alde batetik bertokotasuna , hau da, euskal gizartearentzako materiala egin izan dugu eta beste alde batetik daude giza baloreak. Haur Hezkuntzatik hasita, batxilergora arte egiten ditugu materialak ikasgai guztietan.

Eskola 2.0 egitasmoaren berri entzun genuenean, beste erronka berri bat zetorrela ohartu ginen. Ohituta gaude horretara, curriculumak bata bestearen atzetik etorri izan direlako.

Ibaizabalen baikorrak garenez, hau ilusioz hartu genuen. Esan den moduan, liburu digitala ez da liburu bat PDF batean; beste kontu bat da. Alderatzte bera ematen da paperezko egunkariaren eta egunkari digitalaren artean. Lan egiteko beste modu bat da, izugarrizko inbertsioa suposatuko duena. Kosteak bera da paperezko liburua zein liburu digitala egiteko.

Egitasmo honetan, makinatik hasitako egitasmoa da. Pertsonatik hasi baino, teknologiatik hasi da eta ez dugu ikusten sakoneko hausnarketarik.

Bestetik ere ez da aurreikusi argialetxeen ikuspuntua. Guk irakaskuntzarako edukiak egiten ditugu eta berdina da liburu batean zein web gune batean egon. Lan hau oso konplexua da. Irakaskuntzarako edukiak egiteak lan berezia eskatzen digu. Curriculumean ezarrita dauden helburuei erantzuna eman behar zaie, adin ezberdinaren arabera eta konpetentzien arabera.

Gu euskal hezkuntzaren zerbitzura gaude eta eredu bat planteatzen denean, guk behar besteko ahaleginak eta inbertsioak egingo ditugu.

Por otra parte, se ha pensado que la modernización y la introducción de las máquinas supone desbancar lo que había. Hay que tener en cuenta que la labor en la educación hay que cuidarla y respetarla. Hay que tener en cuenta el momento de la educación en que estamos introduciendo estos elementos. Se habla de la Web 3.0 y en algunos ámbitos se escucha hablar incluso de la Web 5.0. Todo esto es atractivo y tiene sentido en ciertos ámbitos, pero en el ámbito educativo, en un pueblo con un número reducido de habitantes y con un idioma minoritario, tenemos que tener mucho cuidado con variables como el perfil del profesorado y su situación actual con respecto a su formación en nuevas tecnologías. En cinco u ocho años ese profesorado va a cambiar, y estarán capacitados para trabajar en entornos digitales y virtuales. También hemos de aprender de lo que ha pasado en otros países. Pueden convivir procesos tradicionales en papel con procesos modernos.